

03.PRAKTIKA

VOLTIMETROAREN ERABILERA ETA DC eta AC TENTSIO ITURRIEN NEURKETA

ERRAMINTA

- MULTIMETRO DIGITALA

MATERIALA

- 1.5V PILA
- 9V PILA
- 12V BATERIA
- TENTSIO ITURRI ERREGULAGARRIA
- ADA 300 ALE COP MAKETA

HELBURUAK:

- Automozioan neurketak egiteko aparailu elektriko eta elektronikoak ezagutu
- Neurketak egiteko tresnak erabiltzen ikasi
- Eskala eta funtzio egokiak hautatzen ikasi.
- Puntu batetik besterako potentzial elektrikoa neurtu
- Potentzial elektrikoaren diferentziari buruz ikasi



SEGURTASUN NEURRIAK



- Neurketa aparatuak ez kolpatu
- Multimetroa eskala egokietan ipini
- Talde didaktikoak errespetuz tratatu.
- Eskularru isolatzaileak erabili.

GARAPENA:

01. Irudiko polimetroa kontuan hartuz, erantzun ondorengo galderari:

- Zein da (DC) tentsioaren sinbologia eta zein (AC) tentsioarena? Marraz itzazu.
- Zein posiziotan jarriko zenuke hautagailua 1.5 Vko pila baten tentsioa neurtzeko?
- Zein posiziotan kokatuko zenuke hautagailua ibilgailu bateko 12 V ko bateria neurtzeko?
- Zein terminal erabiliko zenituzke 9Vko pila baten tentsioa neurtzeko? Adierazi P.B. (punta beltza) eta P.G. (punta gorria).



02. Kokatu aurreko puntuko elementuak zure polimetroan.



03. Egin hurrengo neurketak ahalik eta modu zehatzenean.

Teorikoa	Errealak
1.5Vko pila	
9Vko pila	
12Vko bateria	



04. Irudia kontuan hartuz erantzun ondorengo galderak:



- Zein terminaletan konektatuko dituzu neurketa puntak AC tentsio bat neurtzeko?
- Non konektatuko dituzu neurketa puntak DC tentsio bat neurtzeko?
- Non kokatuko zenuke hautagailua entxufe baten etxeko sareko tentsioa neurtzeko?



05. Eskolako etxeko elektrizitate sarearen tentsioa neurtu ezazu. Horretarako, konexio terminalak eta voltimetroaren eskala modu egokian hautatu.



Sareko tentsio errealak:

06. ADA 300 maketa konektatu eta jarrita izan ditzaken zubi zuri guztiak desmuntatu. Tentsio sorketaren zatiarekin lan egingo dugu.
- Adierazi 4 tentsio iturriak zirkulu bat erabiliz.
 - Deskribatu tentsio iturri bakoitza (korrante gaitasuna, potentzia, sotzen duen korrante mota...)
07. Sareko elikaduraren tentsioak eskaturiko ezaugarriak dituela ziurtatu ondoren, entxufatu maketa sarera eta piztu ezazu atzeko aldean duen etengailua erabiliz. Egiaztatu baterien elikadura tentsioa eta korrante alternokoarena. Apuntatu lorturiko emaitzak. (Figura 001.3).



Sareko tentsioa:

Baterien elikadura tentsioak:

Elikadura iturri alernoaren tentsioa:




Figura 001.3

08. Jarri konexio zubia 12V ko baterian 001.3 irudian adierazitako moduan, itxi S1, S2 eta S3 etengailuak eta konprobatu bloke ezberdinen elikadura tentsioak. Apuntatu egindako neurketak.

2, 3, 4 y 5 blokeetako tentsioa:

7, 8 y 9 blokeetako tentsioa

6 blokeko tentsioa:

